

2024ko HERRI ALDIZKARIA



IZTURITZE

AUZAPEZAREN HITZA

Herritar maiteak,

Lehenik gure herriaren alde engaiatzen diren guziak bihotzez eskertu nahi nituzke: elkarteak, bolondresak eta, ekimen pertsonalen edo talde proiektuen bidez, gure herria biziarazten parte hartzen dutenak. Zuen engaiamendua biziki baliosa da eta gure ongizate kolektiborako hain baitezpadakoak diren partekatze eta bozkario mementoak sortzea ahalbidetzen du. Adibide anitzetarik bat Arberoako ekoizleen ekimen biziki ederra da, ostiral guzietan Artetxean denek preziatzen dugun tokiko ekoizpenen merkatua eskaintzen baitute.

2024 urtea gure herriarendako egituratzaileak izatea nahi genukeen lan batzuk hasteko urtea izan zen. Agintaldi hastapenetik, neurtua den inbertsio politika bat garatu du herriko etxeak, herritarren, elkarten eta herriak segurtatzen dituen zerbitzu desberdinen arabera beharrezkoak ziren proiektuak lehenetsiz eta, bereziki, eskura zen diru mailako gaitasunaren arabera eginez.

Dirulaguntzen xerkatzea lehentasuna da eta, urte guzietan, Europa, Estatua, Departamendua, Euskal Hirigune Elkargoa, Territoire d'Energie 64, FaLKa bezalako finantza partzuerrei dei egiten diegu, proiektu deialdien, esku hartze araudien eta laguntza funtsen bidez.

Aitzinetikako derrigorrezko ikerketa teknikoek, baimen administratiboen txostenek eta finantzamendu xerkatzeak denbora anitz behar dute operazio desberdinen abiatzea ahalbidetzeko.

Aldizkari honetan, eginak izan diren edo bidean diren lanen eta proiektuen berrikuspena aurkezten dizuegu.

Herriko kontseilu guziak, urte hastapenean pausatu zen herriko kontseilari eta elkarte munduko kide aktibo izan zen Jose CARCELLER jauna omendu nahi luke. Gure sustengu guzia helarazten diogu haren familia eta hurbilekoei.

Bereziki eskertu nahi nituzke laneko prest agertu diren axuant eta kontseilari guziak, baita aldizkari honen idazketan parte hartu duten pertsonak ere.

Zaindu zuen buruak eta ingurukoak.

Frédéric CAMOU

Herriko kontseiluko hautetsiak

PROIEKTUAK ETA OBRAK

• Herriko bideen mantenua

Herriko etxeak bideen eta mendiko bideen mantenu politika bat atxiki du. Baliatze desberdinei loturiko andeatzea eta hantatzte handia ikusirik, 2024an lan handiak egin behar izan ziren Agerrekoborda, Oihanburuko bidea eta Ejitoa bideen berritzearekin.

Urtean bi aldiz, maiatzean eta urri hastapenean, bide bazterreko belar moztea ere egiten da bide guzietan.



Lanen kostua	Finantzamendua	
Zergarik gabeko 66.720 € (Bide berritzea)	64 Dept Kontseilua	20 400 €
	Herria	46 320 €

• Hondakinen Borondatezko Ekarpen Gunea (2022-2024)



Laster elizako aparkalekuan izanen den borondatezko ekarpen gunearen sortzearekin, herriak hondakinen bereizketa eta balioztatzerako diren hiru zutabe ukanen ditu oraindik aitzina. Bilketarako 3 gune berrien antolaketa lanak Euskal Elkargoak eraman ditu, bilketen erreformaren baitan. Hala ere, herriko etxeak lan horietan parte hartu nahi izan du, ingurumenean hobe integratzen diren erdizka lurperaturiko zutabeak finantzatzuz

Lanen kostua	Finantzamendua	
Zergarik gabeko 27.681 € (Zutabeen hornitzea)	Euskal elkargoa	12 984 €
	Herria	14 697 €

• Ihiztarien egoitzaren egokitzea

2023 bukaeran, ETCHEMENDY Jn.-rekin izenpeturiko lursail trukaketarako akordio baten ondotik, 30 m²-ko egitura modularrezko egoitza bat kokatu zen "Xuala" izeneko gunean. Oraindik aitzina, Goratik ACCA-ak ihiziaren praktikatzen egoitza egokia ukanen du. Elkarteko kideak eskertu nahi ditugu, haien egoitza ingurumenean hobe integratzea ahalbidetu duen antolaketa lanetan parte hartu baitute.



Lanen kostua	Finantzamendua	
Zergarik gabeko 18.847 € (Bide+bungalow lanak)	Herria	18 847 €



• AGAZeko langileentzako bulego eta egoitzaren egokitzea

Ihiztarien lehengo egoitzaren zaharberritzeak zuzendaritzaren bulegoa eta Arberoan Alaiki AGAZeko langileentzako eremu bat sortzea ahalbidetu du. Jagoitik, egoitza berri horrek Harpe Alde gunearentzako beharrei eta nahi zen honen baliatzeari koherentzia ekartzen die.

• Besta komitearen egoitza

Gaingan aipaturiko lanekin batera, herriko etxeak elkartzeko eta besta desberdinak prestatzeko ahalbidetuko dien egoitza ukaiteko besta komitearen galdeari arrapostu bat eman nahi izan dio. Jantoki azpian den biltzeko eremu baten zaharberritzeak eta gazteek finitze lanetan ukan duten parte hartze aktiboak 2024ko uda hastapenean gualdi goxo batean iragan zen gakoan ematea ahalbidetu zuten.

* Lan horiei loturik, eskolako korralearen zaharberritzea 2026an iraganen da.

Lanen kostua	Finantzamendua	
Zegarik gabeko 75.750 € (Egoitzak-eskola korrale lanak)	DETR (Estatua)	21 500 €
	FaLK	27 100 €
	Herria	27 150 €



• Harpe Alde eremuaren zaharberritze lanak*



2022an hasirik kanpoko zurerien ordezkatzeko lehen lanak abiatu ahal izan ziren. 2024ko udan, gero eta handiagoak ziren infiltrazioen aitzinean, 1983koak ziren trinketako teilatua eta argi hodia ordezkatzeko lan handiak egin ahal izan ziren.

Lanen kostua (2022-2024)	Finantzamendua	
Zegarik gabeko 92.650 € (Kanp. zureria-teilatua)	DETR (Estatua)	16.800 €
	EUSKAL ELKARGOIA	30.000 €
	Herria	45.850 €

* Harpe Alde eremua 2030erako energia kontsumoaren %50eko apaltzea finkatzen duen dekretu tertziarioaren menpe denez,

herriak egitekoak izanen diren lan horiendako aitzinetikako ikerketak egin ditu.

Jadanik eginak diren dirulaguntza eskaerek 2026an lan handiak egitea ahalbidetuko dute hobekuntza energetikoari (argizatzea, aireztatzea, isolamendua, teilatua, eremu fotovoltaikoa) eta zaharberritzeari dagokionez, baliatze anitzeko gelari bigarren bizi bat emateko gisan bereziki.

• Herriko larreen balioztatzea

Ekimen hori laborariak 2022an abiatu zuten, herriko larreek artzainendako zinezko balioa agertzen zutela sinetsirik. Hau 2024an deklinatu zen, orotara 50 hektarea larreraren berreskuratzeko proiektu anbiziotsuaren inguruan. 2 urtetan eramaniko lanak eta EGEF/Eskualdea (fr.FEDER/Région) proiektu deialdirako hautagaitzak, laborari transhumanteekin larreen mantenuan eta belar txarren erretzearen apaltzean parte hartuko duten kabalak itzultzeko beharrezkoak diren lanak egitea ahalbidetuko digute 2025ean.

Lanen kostua	Finantzamendua	
Zegarik gabeko 23.760 € (Pisten sortzea, hesiendako materiala)	Eskualdea/EGEF (Europa)	16.630 €
	Herria	7.130 €



©: Cecnandez

- **Herri barnearen berrantolaketa eta segurtasunean ezartzea**

2022-2023 artean herri barnearen zeharkatzea segurtasunean egin dadin eta hau edertzeko beharrezkoak diren antolaketa orientabideak finkatzea ahalbidetzen duten erreferentziazko planoaren azterketak eta ikerketa teknikoak egin ziren.


Lehen lanak 2024 hondarrean abiatu ahal izan ziren, jagoitik 18 aparkaleku, hondakinendako borondatezko ekarpenerako gune bat proposatzea, Ilharretasahetsa bidearen ateratzea segurtasunean ezartzea eta hilerrirako eta Txik-Txak sareko linea erregularren eta eskola garraioaren autobus geltokirako ahalmen urriko jendearentzako sarbidea eskaintzea ahalbidetuko duen elizako aparkalekuaren antolaketarekin.



Lanen kostua (2024-2025)	Finantzamendua	
Zergarik gabeko 268.265 € (Bide eta sare-eremu berde lanak, transformatzaile gunea, azterketak)	DETR (Estatua)	55 923 €
	Funtsa Berdea (Estatua)	8 000 €
	64 Dept Kontseilua	42 935 €
	EUSKAL ELKARGOA	38 575 €
	SMPBA	10 000 €
	Herria	112 832 €

Lanen 2. zati batek aparkalekuaren hedatzea barne hartuko du, bereziki gertakariak direlarik aparkatzeko beharrezkoak diren 28 leku gehiagorekin.

Orain dela urte batzuk abiatu zen ondoko lursailaren (jabetza pribatua) eroste prozedura bururatzekotan da.



Erreferentziazko planoaren helburuetariko bat, haren baitan herriko aktibitateen parte handi bat hartzen duen Harpe Alde gunearen inguruak segurtasunean ezartzea da bereziki: eskola, aisialdi zentroa, baliatze anitzeko gela eta trinketa.

Antolaketa horiek sarbide segura, muntadura horren eskubiderako zirkulazio lasaia eta inguruen edertzea ahalbidetuko dute.



- **Hirigoinia etxearen erostea**


2023an, herriko etxea Hirigoinia etxea salgai eman izanaz baliatu zen, prezio berrikuste bidezko lehentasunez erosteko eskubidea abiaraziz. Hasteko, desmartxa horrek duela urte anitz denek pairatzen dugun finantza espekulazioa mugatzea ahalbidetu du.

Ondasuna, misio nagusi gisa lurra aldi baterako kudeatzea duen TLEParen (Tokiko Lurren Establimendu Publikoa, fr. Etablissement Public Foncier Local) bidez erosi da. Lurren aldi baterako kudeatzearen helburua, epe biziki laburrean kolektibitateen finantza ahalak hunkitu gabe lur erreserben sortzea ahalbidetzea da.

Bestalde, herriko etxearen ondoan, herri barnean kokatua den ondasun horrek etorkizuneko baliatze partekatua elgarrekin pentsatzeko ezaugarri guziak ditu, muntadura publiko baten bidez bizi sozialerako eta herritarrak elkartzeko gunerik berri bat eraikitzea ahalbidetuko baitu.

Pentsaketarako behar izan den epealdi horretan, herriak Ttipia kafetegia irekitzeko proiektua zuen Erberua elkarteak egin aldi baterako okupatzeko galdeari baiezkoarekin erantzun nahi izan dio. Lan handirik eta definitiborik gabe tokiaren okupatzea ahalbidetzen duen hirigintza iragankorreko desmartxa batez mintzo gara.

Laster, egokitzapenerako diagnostiko, elkar aditze eta programaketa misioa abian emanen da. Zuen ideiak, zerbitzu nahiak eta besterik partekatzeke parada ukanen duzue bilkura publikoak eta elkar aditze tailerrak izanen direlarik. Hausnarketa horretan zuen parte hartze aktiboa espero dugu.



Herriko etxea/Hirigoinia antolaketaren zirrimarra orokorra. (BE .CAUROS)



(CAUE/.A.LAVAL)

Partzuer instituzional eta tekniko guziak eskertu nahi ditugu, baita herritarrak eta proiektu horietan parte hartu duten pertsona guziak ere.

2024-KO HERRIAREN KONTU ADMINISTRATIBOAK

2023ko soberakin orokorra: 1.055 042,24 €

Funtzionamendua

FUNTZIONAMENDU GASTUAK		
Kap.		Réalisé 2024
011	Izaera orokorreko gastuak	109 354,12
012	Langile-gastuak	252 131,82
65	Ohiko kudeaketarekin zerikusia duten bestelako gastuak	118 234,44
66	Finantza-gastuak	10 626,38
042	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	5 988,30
GASTUAK OROTARA		496 335,06

FUNTZIONAMENDU SARTZEAK		
Kap.		Réalisé 2024
70	Zerbitzuen, jabegoen eta salmenten etekinak	175 107,48
73	Zergak	92 817,28
731	Diru-zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte-hartzeak	128 679,82
74	Ohiko kudeaketarekin zerikusia duten bestelako etekinak	95 076,10
75	Finantza-eteekinak	82 305,17
76	Ohiz kanpoko etekinak	7 223,64
013	Gastuen arintzeak	19 651,22
SARTZEAK OROTARA		600 860,71

Inbertsioak

INBERTSIO GASTUAK		
Kap.		Réalisé 2024
10	Dotazioak, beste funtsak eta erreserbak	3 029,31
16	Maileguak eta dagozkien zorrak	43 661,52
26	Parte hartzeak eta hauri lotu hartze agiriak	1 000,00
<i>Eragiketez kanpoko gastu errealak</i>		47 690,83
	Bide obrak	80 063,90
	Materialaren erosketa	1 746,00
	Herriko eraikinak	38 993,48
	Herri barnearen berrantolaketa	10 106,94
	Energia berrikuntza	62 380,10
	Elkarteen lokala	300,00
	CLSH bulegoa jostalekuaren berritze	45 479,83
	Herriko larreak	1 754,52
<i>Eragiketen gastu errealak</i>		240 824,77
041	Ondare-eragiketak	28 008,78
GASTUAK OROTARA		316 524,38

INBERTSIO SARTZEAK		
Kap.		Réalisé 2024
10	Diru-zuzkidurak, orotariko funtsak eta erresalbuak	15 594,93
<i>Eragiketez kanpoko sartze errealak</i>		15 594,93
	Materialaren erosketa	4 276,69
	Herriko eraikinak	11 793,60
	Herri barnearen berrantolaketa	22 139,90
<i>Eragiketen sartze errealak</i>		38 210,19
040	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	5 988,30
041	Ondare-eragiketak	28 008,78
SARTZEAK OROTARA		87 802,20

2024ko emaitza orokorra: 930 845,71 €

* 2024ko tokiko zergak

	2023ko tasak	2024ko tasak	2024ko oinarriak	2024ko emaitzak
Bigarren bizitegien gaineko bizitegi-zerga	11,29%	12,12%	158 415	19 200
Jabego Eraikien gaineko Lur-Zerga (JELZ)	23,12%	23,12%	370 143	85 577
Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zerga (EGJLZ)	39,39%	39,39%	33 637	13 250
Zergen emaitza orotara				118 027

2025eko HERRIETAKO TOKIKO ZERGEN TASAREN BOZKA

Tokiko zuzeneko fiskalitate mailan erreformak izan direnez geroztik (etxebizitza nagusiaren bizitegi zergaren kentzea, lur zergen oinarrien berrikustea...), herria palanka bakarrean bermatzen ahal da haren baliabide fiskalak kudeatzeko. 3 zergetako tasetan baizik ez dezake eragin, hots, jabetza eraikietan eta ez eraikietan eta bigarren etxebizitzaren bizitegi zergen. Haatik, ez du eskua lur zergetan eta hauen bilakaeran eta horrek aitzinkontuan eta orekatzeko gaitasunean eragina ukan dezake.

Halere, herriak kalitatezko zerbitzu maila bera eskaintzen segitu nahi du ibarreko haur guziendako aisialdi zentroaren bidez, bai eta Aiherrako herriarekin partaidetzan duen eskola eskaintzaren bidez ere. Mekanikoki funtzionamendu gastuen emendatzea ekarri duen azken urteetako inflazioaren emendaketa handia ere kontuan hartu behar du eta estatuaren emaitzen apaltze progresiboari buru egin.

Zerbitzuen jarraikitasunaren finantzamendua bermatzeko eta herri barnearen segurtasunean ezartzeko, honi balioa emateko, zaharberritze energetikoa egiteko eta, orokorrean, bidean eta jitekoak diren interes orokorreko proiektuetan inbertitzeko gaitasuna atxikitze herriak zerga diru sartzeak handitu behar ditu.

Tentsio handiko aitzinkontuko testuinguruan, herriko kontseiluak 2025ean tasa guziak bilakaera proportzionalaren metodoaren arabera handitzea deliberatu du. Gisa horretan, tasak honako moldean finkatu dira: + 0.97 puntu THRSarendako, + 1.85 puntu TFPBarendako eta + 3.15 puntu TFPNBarendako. Fiskalitate horren emaitza aurreikusia jatorrizko aitzinkontuaren orekan sartua izan da.

Urte guziez bezala, tasa horien bozka delibero baten gaia izan da.

	2024ko tasak	2025ko tasak	2025ko aitzinikuspen oinarriak	2025ko aitzinikuspen emaitzak
Bigarren bizitegien gaineko bizitegi-zerga	12,12%	13,09%	88 300	11 558
Jabego Eraikien gaineko Lur-Zerga (JELZ)	23,12%	24,97%	365 200	91 190
Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zerga (EGJLZ)	39,39%	42,54%	34 200	14 549
Zergen emaitza orotara				117 297

Info gisa, 2025eko martxoaren 29an iragan Euskal Hirigune Elkargoaren elkargo-kontseiluaren bilkuran, elkargo kontseilariak erabaki dute gehiengo, 2025eko fiskalitate tasak ez emendatzea (Jabego Eraikien gaineko Lur Zerga, Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur Zerga, Bigarren bizitegien gaineko bizitegi zerga eta Enpresen Lur Funtsen gaineko Kotizazioa) eta Etxe Hondakinen Biltze Zergaren tasa berdina mantentzea baita Ur inguruneen kudeaketa eta Uholdeen Prebentzio zergaren tasarena ere. Zerga agirian aurkitzen dira tasa guzi hauek dedikatuak diren zutabeetan.

2024-ko HERRIKO ETXEO DIRULAGUNTZAK

<i>Ikastetxeak</i>	
Ezkia Hazparneko ikastola	600
Arberoa ikastola	5 400
<i>Ikasleen Burasoen Elkarteak</i>	
Ezkia Hazparneko ikastola	25
Arberoa ikastola aitzina	225
Ursuya	50
<i>Herriko elkarteak</i>	
Abarratia	400
Artetxea	400
Arberoako joaldunak	400
Besta Komitea	400
Goratik	400
<i>Herriko elkarteak (ezohiko dirulaguntzak)</i>	
Artetxea	400
Besta komitea	400
<i>Bertze elkarteak...</i>	
AEK Korrika	300
AFSEP	50
Arrapitz	100
CDIFF 64	50
Gurutze Gorria	50
Euskal Herriko Laborantza Ganbara	100
Euskal Konfederazioa	50
Euskaltzaindia	50
Herria kazeta	100
Integrazio Batzordea	450
Irulegiko Irratia	200
Izpindar	50
Kanaldude	100
Laguntza Etxerat	300
Mediabask	100
Plazara	50
Bihotz Ostatuak	200
Sokorri Katolikoa	50
S.O.S. Laborari	150
Dirulaguntzak orotara	10 800

EGOERA ZIBILA

SORTZEAK

- ARTAYET Elena 2024ko Urtaririlaren 25a sortua, Etxe Pinpirina etxea
- LOBEL Diego, Maurice, Pierre Antoine 2024ko Uztailaren 03a sortua, Mendira Begira etxea
- BARNECHE Eztitxu, 2024ko Uztailaren 21a sortua, Ongi Etorri etxea
- LACLAU Raphaël, Lucas 2024ko Agorrilaren 04a sortua, Argia etxea
- DONAPETRY Martin, 2024ko Agorrilaren 21a sortua, Mendiburia etxea
- CAZOBON Léonie, 2024ko Agorrilaren 21a sortua, Apexania etxea
- SALLAGOITY Idia, 2024ko Azaroaren 20a sortua, Elorrieta etxea

Goresmenak ematen dizkiegu familia gustiei.

EZKONTZA

Thomas, PIERROT eta Virginie MUCK, 2024ko agorrilaren 03an
Pierrick, François, LUCAS eta Sandra SALLABERRY, 2024ko urriaren 12an

Goresmenak ematen dizkiegu ezkonberriei.

HERRIOTZAK

- AYCAGUER Marie Therese, 2024ko urtarrilaren 01a zendua, Pausa Lekuan
- HARCOT Lucienne, 2024ko urtarrilaren 19a zendua, Pausa Lekuan
- URRUTY Laurent, 2024ko otsailaren 17a zendua, Pausa Lekua
- LUMINIC Mathilde, 2024ko martxoaren 03a zendua, Pausa Lekua
- CLAVERIE Marie, Eliza, 2024ko martxoaren 12a zendua, Pausa Lekua
- MIRANDE Jean, 2024ko apirilaren 01a zendua, Pausa Lekua
- SABALOU Jean Batiste, 2024ko apirilaren 07a zendua, Pausa Lekua
- BIDART Charlotte, 2024ko apirilaren 11a zendua, Pausa Lekua
- MOUSSY Marie Hélène, 2024ko apirilaren 24a zendua, Pausa Lekua
- MINVILLE Henry, Albert, 2024ko maiatzaren 01a zendua, EHULATEA etxean
- HARISTOY Jeanne, 2024ko maiatzaren 09a zendua, Pausa Lekua
- ETCHEPARE Louise, 2024ko maiatzaren 19a zendua, Pausa Lekua
- MENDIBOURE née BONETBELCHE Marie, 2024ko maiatzaren 24a zendua, SATHARITZEA
- OTECAR Cecile, Marie, 2024ko maiatzaren 30a zendua, Pausa Lekua
- OTHABURU Jeanne, Marie, 2024ko ekainaren 16a zendua, Pausa Lekua
- SAINT JEAN Pierre, 2024ko ekainaren 28a zendua, Pausa Lekua
- DURRUTY Prosper, 2024ko uztailaren 25a zendua, Pausa Lekua
- DESCAT Pierre, Michel, 2024ko agorrilaren 04a zendua, Pausa Lekua
- DUGUINE Raymond, 2024ko agorrilaren 08a zendua, Pausa Lekua
- MIRANDE Jean, Leon, 2024ko agorrilaren 10a zendua, Pausa Lekua
- DUGUINE Rosalie, 2024ko irailaren 06a zendua, Pausa Lekua
- AROTARENA Jean, 2024ko irailaren 08a zendua, Pausa Lekua
- DACHARY Catherine, 2024ko irailaren 10a zendua, Pausa Lekua
- LARRAMENDY Jean, 2024ko urriaren 18a zendua, Pausa Lekua
- MIREMONT Marie, Rose, 2024ko azaroaren 16a zendua, Pausa Lekua
- ETCHEPARE-OTAEGUI Marie, 2024ko abenduaren 08a zendua, Pausa Lekua
- DOLHAGARAY Yvette, 2024ko abenduaren 11a zendua, Pausa Lekua
- LAFARGUE Jeanne, 2024ko abenduaren 11a zendua, Pausa Lekua
- LEIZA Juliette, 2024ko abenduaren 21a zendua, Pausa Lekua

Gure doluminik bizienak desagertze hauetzak diren familia guztiei.

ERAIKITZEKO BAIMENAK – ANTOLATZEKO BAIMENAK

ERAIKITZEKO BAIMENAK

DAVID Harvey: Kanpoko bi zurerien mugitzea eta hegoaldeko aitzinaldeko bi balkoiren aldaketa.

CASSOU Charles / CLERAC Tania: Baratze mailako garajearen parte bat bizitzeko egokitzea eta beste partea kanpoko eremu estalian bilakatzea. Aitzinaldeko zilatzeen moldaketa. Kanpoko eremuaren moldaketa.

DAVAI ENRPSV6: Sarbidearen moldaketa Departamendu Errepidearekiko 5m-ko gibeltasuna/lerrokatzea atxikitze. Eraikinaren gibelaldean, iparraldean, pasaia baten sortzea, jadanik dagoen ezpondaren mantenurako eta gibeltasunerako. Aitzinaldeen tratamendua. Euri uren kudeaketa.

SAINT ESTEBEN Xavier: Laborantzarako eraikinaren eraikitzea, tradiziozko borda gisakoa.

EYHERACHAHARIA: Eremu fotovoltaikoaren moldaketa

BEILLEAU Frédéric: Autoendako aterpe ez eraikia - finkatze moldatua - kanpoko antolaketa moldatua - kanpoko leihoak moldatuak.

AITZINETIKAKO GALDEAK

BOUTHORS Anne Carole: Igerilekua

FLORANGE Anthony: Terraza eta zolaz gaineko igerilekua

EURL HIRIGOYEN Pierre: Aitzinetikako deklarazioaren luzatzea

EDF ENR / MME POLASTRON Cécile: Panel fotovoltaikoak



OBREN BURURAPENA ETA ARABERAKOTASUNA SEGURTATZEN DUEN DEKLARAZIOA

Obren aitzinetikako deklarazio eta Eraikitze baimen oro (eraikitzea, arraberritzea, handitzea, aitzinaldearen aldatzea, etab.) hirigintza-erabaki baten xede izan bada, deklaraturako obren arabera kototasuna egiaztatu beharko da.

2022ko bigarren urte laurdenetik, herriak Euskal Hirigune Elkargoko zinpeko langile bati eska diezaioke kontrol horiek egiteko eta, beharrez, hirigintzako kodearen arau-hausteen agiria egiteko.

Oroitarazten da galdegile guziek bi dokumentu aurkeztu behar dituztela; hastapenean, Obrak hastearen deklarazioa eta, bukaeran, Obren Bururapena eta Araberakotasuna Segurtatzen duen Deklarazioa.

Obren aitzinetikako deklarazioa edota Eraikitze baimena aurkezteari buruzko edozein galderaren egiteko, jar zaitez harremanetan Herriko Etxearekin, zure eskaera Hazparnealdeko hTHPen araudiarekin bateragarria dela



ARBEROAN ALAIKI AISIALDI ZENTROA

Arberoan Alaiki aisialdi zentro elebidunak lau herri antolatzaileetako familien zinezko behar bati erantzuten die.

Iragan udan, 89 familia zerbitzuaz baliatu ziren, hots, 3 eta 13 urte arteko 125 haur, uztailaren 8tik agorrilaren 16ra arteko epealdian 7:30etik 18:00etara, astelehenetik ostiralera, Itzuritzeko "Le Petit Prince" eskolarekin partekatzen den egoitzan. Taldea zuzendari batez: Carmen CARCELLER, ZIGA (BAFD) diplomaduna, eta zazpi animatzailez: Gexan MARTINON, Elorri LANDABURU, Amaia PAVON, Inès SALLABERRY, Inès MOUSTIRATS, Émilie BORDA eta Élisabeth BARNETCHE, eta 3 AIGA ikastun langilez: Maiana DUHART, Lola SALLABERRY et Matéo SABALOUÉ osatua zen.



Haurrekin munduaren itzulua egin zen, aste bakoitzean herrialde bat irudikatuz. Herrialde bakoitza eskulanen, gorputz adierazpenen, joko eta kirol aktibitateen, ateraldien... bidez deskubritu ahal izan zuten. Horra uda hau markatu duten gertakari nagusiak:

- EcoSporten esku hartzea: Munduko dantzen lehen irakaspenak
- Lagunarte konpainiako Amaia Hiriarteren euskarazko lau esku hartze, Munduko musikei buruzko ikusgarria prestatzeko
- Ehun pertsona inguru bildu zituen Familiendako ikusgarria, ondotik izan zen jan edanarekin
- 15 hurrek parte hartu zuten Bidarraira eginiko egonaldia laburrean (via ferrata eta orientazio lasterketa, gaudiak lholdin).
- 19 hurrek gau batez kanpatu zuten aisialdi zentroan
- MAPOko egoiliarrekin topaketa, MAPOko animatzaile den Lydiak antolaturiko Bigoudi pailazoaren ikusgarriaren inguruan
- Ateraldi desberdinak: bidaparc, ttikientzat, accrojungle, ttiki leku, ibilaldiak...

Opor ttipiak gai desberdinen inguruan iragan ziren (Joko Olinpikoak, Lur eta Itsasoaren artean, euskal mitologiaren deskubritzea) animazioak eskainiz (kirol aktibitateak, eskulanak, musika, animazioak...). Izturitze inguruetan oihaneko promenadak eta ibilaldiak antolatu ziren, baita animazioak, esku hartzeak eta ateraldiak ere. Epealdi bakoitzean 80 haur inguruk baliatu dute zerbitzua.

2023-2024 urteko asteazkenei dagokionez, 71 haur baliatu da zerbitzuaz. Asteazken goizetan presente zirenak kanpoko esku hartzaileek eskainiriko aktibitateak segitu zituzten (Yoseikan Budo). Esku hartzaileez gain, Aurélie BISCAYCHIPY, Audrey IPUY, Elorri LANDABURU, Élodie CAZAURAN, Karine HILDERAL eta Carmen CARCELLERek haurrei aktibitate desberdinak proposatu dizkiete, haurren erritmora egokituz: Eguberriko merkatua, lehen sokorri jestuen inimizazioa (lehen jestuak biltzen dituen liburuxkaren egitea eta Hazparneko suhiltzaileen kasernaren bisita), Lurra (landatzea eta luraren inguruko animazioak, beldarren bilakaeraren eta transformazioaren behatzea), tokiko artisau eta ekoizleen deskubritzea:

- Ttukulua etxaldea, Lekuine
- La Fabrique de chocolat, Bastida
- Agerria etxaldea, Donamartiri
- Pierretounen asto hazkuntza, Pezaru
- Ogi Bihia okindegia, Hazparne
- Uhaldia etxaldea, Hazparne
- Sarde Sardexkaren esku hartzea: pintxoak tokiko ekoizpenekin



Urte bukaerako ateraldia Labenneko Robinson parkean (zuhaitz gaineko ibilbidea) iragan zen. Ikasturtea burusoekin iragan zen gaudi batekin bururatu zen, kermeza joko, pintxo eta edatekoaren inguruan. Berrogeita hamar pertsona inguru presente ziren.

Xehetasunak eskuratu nahi badituzue, ez duda Carmen CARCELLERekin harremanetan sartzeari, posta elektronikoki bidez honako helbidean: arberoanalaiki@isturitz.fr edo telefonoz 07.86.49.00.15. zenbakira deituz. Aisialdi zentroaren funtzionamenduari buruzko xehetasun ororendako Izturitzeko herriko etxearekin harremanetan sar zaitezke 05.59.29.62.84 zenbakira deituz.



BIGABAT HERRIARTEKO ESKOLA ELKARGOA AIHERRA ETA IZTURITZEKO ESKOLA PUBLIKOAK

Haren funtzionamendua herri bakoitzeko hautetsiz osatua den sindikatu batzorde batek bermatzen du eta, haien artean, Frédéric Camou eta Arño Gastambide auzapezak eta ikasleen burasoen ordezkariak daude. Lehendakaria Arño Gastambide da.

Haurrak ateraldi desberdinez baliatu ahal izan dira: igerilekua, zinema, ikusgarriak... Ekainean Aiherran eskolatuak diren haurrendako 2 gau/3 eguneko egonaldia antolatu zen PEP Malibert 34 zentroan (Saint-Chinian 34360), astronomia, orientazioa eta ingurumena (abereak) gaitzat zuten aktibitateekin eta, Izturitzen eskolatuak direnendako, Angeluko IZADIA zentro ekologikoaren bisita barne hartzen zuen ateraldia egin zen. Azaroan lehen mailako bigarren urtekoak eta hirugarren urtekoak Oronozia zentroan (Baigorri) 2 egun eta gau 1eko egonaldia egin zuten.

SIVUak ateraldi horietan diru mailan parte hartzen du (garraioaren, egonaldiarendako haur bakoitzeko esleitzen den zenbatekoaren haren gain hartzea).

RPIak, 2024ko sartzearan 82 ikasle zituen, honako moldean banatuak:

- **Izturitzeko eskola** (haur eskolatik lehen mailako hirugarren urtera): 39 ikasle, denak elebidunean, irakasle 1 frantsesez, 2 irakasle euskaraz eta 2 ABLA.
- **Aiherrako eskola** (lehen mailako bigarren urtetik bosgarren urtera): 43 ikasle, hauetarik 3 elebakarrean, irakasle 1 frantsesez, irakasle 1 euskaraz.

Irakaskuntza oren parekotasunean da: 12 oren frantsesez eta 12 oren euskaraz, bakoitza bi egunen barnean banaturik. Izen-ematea haurraren bizilekuko Herriko Etxean egiten da.

ERAKUSTEA

Zure haurra "Bigabat" bateratze pedagogikoan eskolatzearan, ikasle kopuru ttipietako geletan izanen da, eta ingurumen kalpe eta lasaigarrian ibiliko da. Honi esker, zuek guraso gisa herriko biziri lotuko zirezte, ezagutza berriak egiten dituzue... Horrela gure herrietako eskolen iraunkortasun lagunduko duzue, eta aldi berean gure baserri erenpuko bizitasuna eta erakargarritasuna ere.

BIGABAT bateratze pedagogikoaren zikloak honela banatuak dira :

- Izturitzeko eskola : ama-eskola
- Aiherrako eskola : lehen mailako lehen urtetik bosgarren urtera
- Talde pedagogikoa :
 - Izturitze: Frantses irakasle bat, euskara irakasle bat, eta 2 ama-eskolek langile berezitu, denbora oso.
 - Aiherra : Frantses irakasle bat, euskara irakasle bat.

 Zuen haurra frantses hitseko sailean edo euskara-frantsesa sail elebidunean ezartzen ahal duzue. Elebidunean, irakaskuntza oren parekotasunean egiten da: 12 oren frantsesez, 12 oren euskaraz.

Oharra : Elebitasun goiztiarra, eleantiztasunari buruzko atea da : Haurtarotik euskara ikasteak, frantsesarekin betan, hirugarren hizkuntza batera ikastea errentuko du.



BATERATZE PEDAGOGIKOAREN ABANTAILAK

Irakasleka maila kopuru apaltzeari esker haurra hobeki inguratua da eta laguntza berezitua du

Kolegiara pasatzean errexkiago egokitzen dira

Maila bereko ikaslearen artean emulazioa bada

2 urtetik goiti haurren eskolatzeara baldintza hobeeetan egiten da



FUNTZIONAMENDUA

Eskola bakoitzearan den zairidegiak haurrak errezibitzen ditu 7:30etatik goiti. Arratsan, 18:15 arte irekia da.

Goizean : 1€ - Arratsaldean : 1€



Eskolako jantegia ere eskola bakoitzearan segurtatua da. Langile kalifikatuak ikasleak zaintzen dituzte bazkari denboran.

Lotura autobus batek haurren garraioa segurtatzen du eskola batetik bestera, segurtasun baldintza hobereetan, joan-jin bakoitz laguntzaile batekin.

GAINERATEKO GAIK

Haur ttipiak eskolari egokitu bi urtetik goiti

Haur ttipiek haien biharko eskola ezagutzeko aukera ukan dezaten...

Egokitzeko egun erdi bat edo gehiago proposatua zaio haur bakoitzari, eskolaren ezagutza egin dezan, lekuak eta hezkuntza taldearekin batera. Mundu berri horretan goxoki sartzeko magera. Ez dudu, hitzordua har ezazue eskolako zuzendariarekin.



ASTEAKERETAN

Arberoan Alaiki asialdi zentroa idekia izanen da Izturitzen, asteazken guziz bakantzetatik kanpo. Kirol eta kultur ekintzak proposatuak izanen dira.

Milesker Carmen Cellerer, zuzendariari igortzea mail bat, zenbaki unteak : alsb@isturitz.fr 07.86.49.00.15.

HARREMANAK

Isturitze : CASTILLON Bruno
Tél. 05 59 29 45 97 edo 09 67 78 45 97



Aiherra : BRENOT Emilié
Tél. : 05 59 29 42 13

Zuzendariak zuen zerbitzuko gelditzen dira edozein argitasun edo hitzordurendako. Aintzin, herriko etxean behar duzue zuen haurraren izena eman.

GIZARTE EKINTZAKO UDAL ZENTROA (GEUZ)

Definizioa: GEUZak herriko gizarte arazoak kudeatzen ditu. Bere aurrekontu propioa dauka. Auzapeza izaten da honen lehendakaria, eskubide osoz.

9 kidek osatzen dute administrazio kontseilua, horien artean:

5 zinegotzi tituludun: Frédéric Camou, Virginie Légarto, Nickie Lelorec , Monique Lohiague, Karine Malé izengoitiz Cazot.

Zinegotzi ordezkari bat: Myriam Gourgues

Familien, adintsuen eta elbarrituen edo baztertzearen kontra eta gizarteratzearen alde borrokatzen diren **elkarteen 4 ordezkari:** Bernadette Ascery, Claude Candiard, Marie-Pierre Casemajor, Marie-Josée Lacroix.

Esleipenak

Nahitaezkoak: Gizarte Ekintzako dosierak osatu eta departamenduko zerbitzuei helarazi

Hautuzkoak: araudiak “prebentzio eta gizarte-garapenerako ekintza orokor bat” eramateko baimena ematen dio (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-2. artikulua), diru laguntzak esleituz “jendetzaren beharrak aztertu” ondotik (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-1. artikulua)

Esleitzeko modalitateak

GEUZak ez du ohiz kanpoko beharrak estimatzeko eskumenik. Beharrez, Hazparneko GEUZari dei egiten dio diagnostiko bat finka dezan.

Diru sartzeak izan daitezke herriak ordaindutako diru laguntza edo dohaintzak edo ondoriotasunez emandakoak

Erabakiak

Saioak atek hetsirik iragaten dira administratzaileek sekretua gordetzeko eginbeharra bete behar baitute. Neurri bakar batek ere ez du GEUZaren bilkura agiriak afixatzera behartzen.

Orotarik

- Apairuen eramatea: Hazparneko GEUZak, Euskal Elkargoaren eskumenaren menpe, erretretan edo ahultasun egoeran (lan geldialdia, ahalmen urritasuna) diren pertsonendako irekia den zerbitzu hori kudea dezake.

Harremanetarako: 05 59 70 29 07

- Sareko desmartxa administratiboei (ordenagailu baten eskura ezartzea eta/edo zuzeneko presentzia bidezko laguntza), telelaguntzari eta elkartasunezko asurantz osagarriari dagokien laguntza eta/edo informazioa proposatzen dira. Ez duda zuen herriko etxera joatean honek zuen galdea tratatuko baitu.

- Zare hornitua: Azken hauek herrian bizi diren eta gutienez 75 urte dituzten adinekoei banatu zaizkie.

- 60 urtetik gorako pertsonendako apairua antolatu zen ekainean, hogeita hamar pertsona inguru elkartuz. Lagun arteko giroan iragan zen elkar mintzatzeko memento goxoa izan zen.

TRANSHUMANTZIA

2024an ere, transhumantzia, mendiko herrien bizian funtsezko eragina ukaiten segitzen duen arbasoen tradizioa da. Ardiak, behiak eta ahuntzak molde harmoniatsuan elkarrekin bizi diren Izturitze herrian, praktika hori abere taldeen sasoiko lekualdatze soila baino gehiago da; belaunaldiz belaunaldi transmititu den jakitatearen isla da.

2024an, transhumantzia gertakarietan bereziki aberatsa izan zen.

2025erako etapa berri bat ageri da: bazkaleku eremu berrien sortzea. Artoski hautaturiko eremu horiek abere tropa gehiago hartzea eta baliabide naturalen kudeaketa hobe egitea ahalbidetuko dute. Hazleak eremu berri horien deskubritzeko gogotsu daude, bazkaleku aberats eta desberdin gehiago izanen baitira. Praktika horrek eremu minberetan belar txarren erretzea anitz apaltzea ahalbidetuko du eta horrek bioaniztasuna mantentzea ere posible eginen du.

Transhumantziak, haren alde ekonomikotik at, naturaren eta sasoi zikloen errespetuaren garrantzia oroitarazten digu. 2025ean, eremu berri horien irekitzearekin tradizio hori atxikitzen segitu nahi dugu, gaur egungo erronkei egokitzearekin batera. Transhumantziak gure kulturaren zutabe bat izaten segitzen du, iraganaren eta etorkizunaren arteko lotura bizia.



VIRA ET VASA

Ondarearen zaintzaileen soinu altxorren xerka

Arberoa ibarraren balioztatzeko proiektuaren baitan ekintza desberdinak identifikatu dira, hauen artean altxorren xerka joatea. Urte osoko familia guziarendako aktibitate oso bat.

Via eta VASA altxor xerkatzea GPSari esker egiten den ibilbide joko bat da. Aplikazioaren oharrak segituz soinu etapen heinean gelditu behar da hauek entzuteko eta, pistei esker, Virak utzi duen aztarna fisikoa xerkatu behar da. Pista desberdinekin gordelekua eta haren karta kolektorrak atzeman behar dira.

Vira, arreba handia eta Vasa, anaia ttipia, ondarearen zaintzaileak dira. Haien aztarnak segituz iragana berriz biziarazten ahalko duzue eta zuek ere ondarearen zaintzaile bilakatuko zarete. Fikzioari eta soinuari esker, altxor xerkatze joko horrek ondarea erakargarriago egiten du. Gune historikoen, pertsonaia enblematikoen edo gertakari garrantzitsuen inguruan kontakizun liluragarriak sortuz, fikzioak dimentsio emozional berri bat ematen dio ondareari. Horrek heroiekin identifikatzea, intriga zirraragarriak esploratzea eta misterio edo abentura kutsua duten guneak (berriz) deskubritzea ahalbidetzen du.

Soinuak esperientzia imertsiboago eta eskuragarriago bilakatzen du, bisitariak lekuaz hobe gozatzeko eta informazioak molde erakargarriagoan eta errexagoan eskuratzeko gisan. Bereizki eraginkorra den tresna pedagogiko bat, familia publiko batendako, Esperientzia aberastua proposatzea da, zeinean bakoitzak ibilbide ez hain konbentzionalak eta berdin interesgarriak esplora ditzakeen, gisa horretan lurraldeen deskubritze egiazkoagoa eta ez hain formatatua faboratuz.

2025eko uda baino pixka bat lehenago 3 ibilbide plantan emanen dira ibarrean: 1 Aiherran, 1 Izturitzen eta 1 Donamartiri/Donoztirin Audioa frantsesez edo euskaraz eskuragarri izanen da. Aitzina abenturan barna...

ESKAERA BIDEZKO GARRAIOA (EBG) HAZPARNEALDEAN

Prise en charge à l'adresse de
mon choix vers le point de dépôt
sélectionné parmi les suivants !



ISTURITS

- ✓ AÏCIRITS-CAMOU-SUHAST : Ttarga
- ✓ AÏCIRITS-CAMOU-SUHAST : Aiziritze
- ✓ ARRAUTE-CHARRITTE : Eglise
- ✓ AYHERRE : Lauak (correspondance 43, 60)
- ✓ BARDOS : Place (correspondance 41)
- ✓ BEHASQUE-LAPISTE : Oyantoa (correspondance 63)
- ✓ BIDACHE : Place du Fronton (correspondance 41)
- ✓ BONLOC : Boncolac
- ✓ BRISCOUS : Mairie de Briscous (correspondance 43)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Iguzkian (correspondance 27)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Gare de Cambo-les-Bains (correspondance 27, 46, TER 54)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Gare Routière (correspondance 27, 28, 40, 46, 60)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Marronniers (correspondance 28)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Place Sorhaide (correspondance 27, 28, 40, 60)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Camping Bixta Eder (correspondance 28, 40, 46)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Bon Air (correspondance 28)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Pont des Thermes (correspondance 27, 28, 60)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Urtzua (correspondance 27)
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : Centre médical Artzamendi
- ✓ CAMBO-LES-BAINS : CAT Celhaya

- ✓ GUICHE : Bourg (correspondance 42)
- ✓ GUICHE : Base de Pop
- ✓ HASPARREN : Centre commercial Elizaberri
- ✓ HASPARREN : MSAP
- ✓ HASPARREN : Centre commercial Mendeala
- ✓ HASPARREN : Commerces bourg
- ✓ HASPARREN : Centre médical
- ✓ HASPARREN : Place du Labourd (correspondance 43)
- ✓ HASPARREN : EHPAD
- ✓ HELETTE : Bourg
- ✓ IHOLDI : Bourg
- ✓ IHOLDI : Goxa Leku
- ✓ IRISSARRY : Salle Aireski
- ✓ IRISSARRY : Pharmacie
- ✓ IRISSARRY : Cabinet médical Etxebarmondo
- ✓ IRISSARRY : Bourg
- ✓ ISTURITS : Fronton/ EHPAD
- ✓ ITXASSOU : Altzuetza (correspondance 28)
- ✓ LA BASTIDE-CLAIRENCE : Centre bourg
- ✓ LA BASTIDE-CLAIRENCE : EHPAD

- ✓ LA BASTIDE-CLAIRENCE : Equipements sportifs
- ✓ LARRESSORRE : Centre Bourg
- ✓ LOUHOSSOA : Elissetche ahizpak (correspondance 40)
- ✓ MACAYE : Fronton
- ✓ MENDIONDE : Base de Loisirs du Baigura
- ✓ MENDIONDE : Bourg
- ✓ OSSES : Centre Commercial
- ✓ OSSES : Bourg
- ✓ SAINT-MARTIN-D'AROSSA : Gare d'Arrossa (correspondance 62, TER 54)
- ✓ SAINT-PALAIS : Alegera
- ✓ SAINT-PALAIS : Bideak
- ✓ SAINT-PALAIS : Club Loisirs et Amitiés
- ✓ SAINT-PALAIS : Hôpital de Saint-Palais (correspondance 41, 63)
- ✓ SAINT-PALAIS : Eglise (correspondance 41, 60, 63)
- ✓ SAINT-PALAIS : Sainte Elisabeth
- ✓ SAINT-PALAIS : Laboratoire
- ✓ SAINT-PALAIS : Mairie

NOLA EGIN BEHAR DA?

Nire bidaia erreserbatzen dut

Telefona:

05 47 75 76 64

Astelehenetik larunbatera:
07:00etatik 20:00etara
Igandetan eta besta egunetan
(Maiatzaren 1az kanpo):
09:00 - 12:30 eta 10:00 - 17:30

Linea:
(txiktxak.fr aplikazioan eta webgunean)
eskuragarri izanen da 2025ean

Baieztapen bat eskuratzen dut:

Abiatu baino 2 oren lehenago,
SMS batek berretsiko
dit nire ibilgailuaren
pasatzeko tenore zuzena.

Nire abiagunera noa:

10 minutu lehenago heltzen naiz bertara.
Kasu: gidariak ez du gaitatutako
barante baldin bazara.

Nire erreserbazioa aldatu edo
ezertatu behar badut?

☎ Telefonoz edo webgunean

Ibilgailua dator:

Nire garraio-titulua baliozkotzen dut,
nire lekuan jarri eta nire ibilbideaz
baliatzen naiz helmugaraino.

JAKITEKOAI

Gibeleraiko ibilbidea egin nahi badut,
haratekoaren batean erreserbatzen dut.

Ibilbidea eta abiatze-tenorea, erreserbatzen
arabera egokituak dira, bidaia multzokatzeko.

ZEIN PREZIOZAN DA?

Eskaera Bidezko Garraioa, autobusaren ber prezioan da!

1,30€ bidaia
Barnean salduak diren tituluak
- SMS bidaia 1, EBG igoerri 93064ra
- Bidaia 1 txartela, sos idorrez bakarrik
(gehienik 20€ko billetez)
Zure abonamenduan sartua da

Ohituki bidaiazen badut?

Abonamendua eta noizbehinkako
garraio-tituluak deskubritzen ditut
txiktxak.fr webgunean.

GALDERA BAT? INFORMAZIO BAT?

05 47 75 76 64

Astelehenetik larunbatera,
07:00etatik 20:00etara
Igandetan eta besta egunetan
(Maiatzaren 1az kanpo):
09:00 - 12:30 eta 10:00 - 17:30

GURE SEGITZKO:

txiktxak.fr

Orain,
zure xerka
heldu gara!

BERRIA
Eskaera bidezko garraioa



ZERBITZU BERRIA: Eskaera Bidezko Garraioa, malgua eta!

TXIK TXAK nire xerka dator nire
haututako helbiderat, zerbitzatuak
diren herrietaratz

Eta nire herriatik proposatua
den uzte-gune baterat
eramaten nau

Abiatu baino 2 oren 1 lehenago
erreserba dezaket edo nire
bidaia hilabete 1 baino
lehenagotik planifika ditzaket
(eskuragarritasunaren arabera).

TENOREAK

Astelehenetik
larunbatera:
07:30etik 19:00etara
(19:30a arte andaluz herrietan:
Bosca, Arangiz, Alhama,
Arbona, Millaranga, Mugera,
Biarritz eta Urrutia)

JAKITEKO ON

Ibilgailuak
Mugikortasun urriko
pertsonak egokituak
zaizkie

pays
basque
euskal
herria

txiktxak.fr

TXIK
TXAK

HERRIKO ELKARTEEN BIZIA



BESTA KOMITEA

2024 urtean zehar, besta komiteak 4 proiektu antolatu zituen.

Urte hastapenean, otsailaren 10ean iragan zen ihauteriekin hasi ginen, Artetxearekin elkarlanean. Aurtengo gaia "lehengo Izuritze" zen. Hamarka jende jin zen besta gelan zen ostatu ingurura, karroa abiatzeko denbora.

Ondotik, martxoaren 16an, xerrikume jate apairuarekin segitu genuen. Herritarrek eta kanpokoek Ezkaratza janari prestatzaileak eginiko apairu ederraz gozatu ahal izan zuten. Apairua eta dantzaldia jendea girotzen jakin zuen Edantzak animatu zuen.

Antolaturiko hirugarren ekimena herriko besta tradizionalak izan ziren. Urte guziz bezala, bestak ostiralez hasi ziren. Ostiraleko lehen partearendako talo salmenta eta ostatua proposatu genituen, Piztoiak taldeak animaturik. Larunbat goizerako berrikuntza, herritarren artean arrakasta handia ukan zuen arteki moleta eta etxeko frita apairua eskaini genuen.

Arratsaldez adin guzietarako jokoak izan ziren. Haurrak puzgarriekin jostatu ahal izan ziren besteak beste. Zikiroari dagokionez, Begi Beltz taldeak apairuari erritmoa ematen jakin zuen baita 5ak arte iraun zuen dantzaldiari ere !

Igandean, urte guziz bezala, Artetxeak antolaturiko kantu bazkariak gozatzeko parada ukan genuen. Arratsaldean Altzükütürak taldeak haren kantu ospetsuekin animaturiko kantaldia proposatu genuen elizan. Arratsean, Mutturfinekin elkarlanean Muttur'gaua berriz itzuli zen eta ekarri zituen haren burger goxoekin denen ahoak loriatzea arribatu zen, batzuek aski gogorra zen besta biharamun hartan ! Ondotik, urriaren 20an, herritarren apairua jin zen.

Urtea finitzeko, azaroaren 10ean komiteak hamarnaka talde bildu zituen mus lehiaketa antolatu zuen, irabazteko sari eta opari anitzekin.

Bulegoaren mailan, Iban ST ESTEBEN eta Anaïs CASEMAJOR lehendakari postuan izendatzearekin berrikuntza izan da, Bixente CARCELLERek beste urte baterako diruzain postua atxikitzen du, Amaia HARAMBOUREK idazkari izaten segitzen du eta Léane AUFFRET bulegoan sartu da idazkari gisa ere!

Komiteak bolondres guziak eta partzuerrak haien inplikazioagatik eskertu nahi ditu. Esker handi bat ere aurtan komitean sartu diren gazte berriei !

Esker handia zuei, herritarrek, zuen eskuzabaltasunagatik, zuen parte hartzeagatik eta humore onagatik ! Biziki fite arte !





ARTETXEA

2024 urtea aberatsa izan da guretzat. Alabaina 15 bat ekitaldi izan dira publiko zabal batentzat pentsatuak izan direnak. Kontzertu, kantaldi, bertso saio, antzerki, liburu aurkezpen, mintzaldi, kantu bazkari, filma proiektzio eta beste.

Ekitaldi gehienak gure elkarteak antolatuak izan badira ere, beste batzuk beste elkarte baten partaidetzarekin egin dira, izan Pesta komitea, Arberoan zehar, Arberoa ikastola, Joaldunak, Irulegiko irratia edo beste.

Gure agorrileko gaualdiagure 10 urteen ospatzeko baliatu ginuen eta nola gainera!

Tapia eta Leturia talde mitikoaz gain Andoni Ollokiegi hor baiginuen bere usaiako mintxarekin.

Gaualdi zinez ederra.

Pazkoko eta urriko oporretan zirko ikastaldiak antolatu ginituen haurrentzat eta arrakasta ukan zuten.

Bestalde urte osoko jarduerak ere beren usaiako lekua dute. Arte /eskulan saioak haur, gazte eta helduentzat, euskara kurtsuak helduentzat, STEP gazte eta helduentzat, YOGA, Komunikazio EzBortitz praktika taldea, Artetxea kantuz,... ahantzi gabe ostiral guziz Arberoa eskualdeko laborarien merkatua, tokiko eta kalitatezko ekoizpenak erosteko parada emaiten daukuna !

2025 urtea ere bide beretik hasia dugu eta jadanik 3 data eman ditzakegu zuen egutegietan sartzeko :

*Maiatzaren 16an : Bertso afaria Jon Maia + Sustrai Colina

*Agorrilaren 29an : Arberoa txaranga + Buuzbu + Joseba Irazoki

*Urriaren 4ean : Kantu bazkaria eta marmitakoa

Zuetarik batzuk gure elkartean esku ukaldi baten emaiteko interesa balute, hurbil ditezela gostian.

Bukatzeko, oroitaraz dezagun gure elkarte euskara eta euskal kultura gure herrian eta oro har Arberoa eskualdean bizirik atxikitzeko eta zabaltzeko sortu zela!





Biltzar nagusiaren hastapenean iragan urtarrilaren 14an pausatu zen Jose Carcelleren omenez minutu bateko isiltasuna atxiki genuen. Bolondres fidela izan zen, aktiboa ostatu mailan (antolakuntza, zerbitzua, sukaldea), ibilaldirako erosketak egiteko mementoan... E egunean gidari lanetan, karcher prestaketan eta, hain segur, anitz ahanzten ditugu hain zen beti denetan presente eta umore onez. Azken adian, Kafe Ttipiako sortzaileetarik izan zen baina, maleruski, eritasunak ez dio nahi bezain beste gozatzeko parada eman. Urtarrilaren 25ean omendu genuen, haren, familia eta lagunekin. Gure sustengua berriz adierazten diegu Marlène, Carmen, Angelo, Eric, Bixente eta haren haur ttipi Noahri, bai eta haren haurren bikotekideei ere. Haren ama galdu berri duen Romain ere gogoan izan genuen.

2023-2024 pala txapelketa

Ipar Euskal Herri guztitik jiniko 80 talde bildu zituen. 2023ko azaroaren 13an abiatu zen eta finalak 2024 apirilaren 13an iragan ziren. Finalaren ondotik aperitifia eta AUXOTEAk prestaturiko apairua herriko jantokian, zeina bolondresak zerbitzatu zuten. 45 lagun ginen.

Bolondres batzuen inplikazioari esker txapelketan sari ederrak izan ziren, bihotzez eskertzen ditugu, jokalaria haiei opariekin loriatuak ziren.

Bolondresik gabe txapelketarik ez. Eskertzen ditugu izen emateak hartu eta ostatuaren funtzionamendua kudeatu duen Carmen Carceller, partida gibelatuak eta egutegia kudeatu dituzten Philippe Garispe, Battitte Erreçaret eta Véronique Garay-Labat; epaileen arduradun ziren Peyo Etchegoyen, Eric Mimiague, Romain Lagourgue eta epaile talde guziak eta ostatua kudeatu dutenak.

2024ko maiatzaren 4ko larunbateko ateraldia

Autobusez Usurbilgo Saizar sagarnotegira bazkaltzera joan ginen. 42 lagun ginen. Eguna ederki joan zen, giro goxoan, aro ederrarekin, parte hartzaile guziak loriatu ziren.

2024ko urriaren 27ko ibilaldia



Egun horretako eta aitzineko egunetako aroak ez zuen eguna normalki iragaitea ahalbidetu, parte hartzaileak hala ere loriatu ziren.

187 parte hartzaile, haur eta heldu, zeinetarik 119 oinezkoak eta 68 txirrindulaz.

Lehen urte honetarako, Senpereko "Maison Goxa Leku" elkarteak hautatu genuen izen emate bakoitzeko euro bat irabazteko. Laguntza horrek minbizia duten emazte eta gizon guziei eskainia zaien gune bat haien esku ezartzeko parada emanen dio denendako irekia den etxe horri. Indar

guzia laguntzan, ongizatean, topaketetan eta partekatzean ezartzen du.

Bihotzez eskertzen ditugu:

- E gunean aparkalekuan, izen emateetan, jan-edan guneetan, segurtasun eremu desberdinetan, ostalaritza zerbitzuan edo sukaldean laguntza eman eta egun arrakastatsua izan zedin dena eman zuten bolondresak.
- Haien lursailetatik iragatea baimendu ziguten lurjabe desberdinak.
- Arratsetan zirkuituen garbiketa egin zutenak eta egunez belar pikatzen aritu zirenak.
- Jean Michel eta Sylvain Donapetry, auto anitz segurtasunean aparkatu zedin pentzeak eskura uzteagatik.

Egun horrek 70 lagun mobilizazioa galdegin zuen.



TTPIA KAFETEGIA

Herriko etxeak, Hirigoinia etxearen parte baten, hots, egongela, sukaldea, komunak eta barneko korralearen baliatzeko prestatze kontratua izenpetu du Erberua elkartearekin. Belaunaldi desberdinen artean elkartzeko eta trukatzeko gune berri hori Ttipia kafetegia deitzen da.

2024ko urriaren 1az geroztik, Erberua elkarteko kideei kafe, dute edo alkoholik gabeko edari baten inguruan elkartzeko parada ematen die 5 €-ko kide sari truk; kide bakoitzak gonbidatuak ekar ditzake. Egun guziz irekia da, 9:00etatik 12:00etara, bolondresen disonibilibitatearen arabera.

Bolondresak egoitzaren eta belardiaren parte baten mantenua bermatzen dute. Didier Alberrok ur berogailua instalatu du. Eskertzen dugu. Bihotzez Frédéric Camou eta gure galdearen alde agertu duten Herriko Kontseilua eskertzen ditugu.

IZTURITZEKO GORATIK IHIZI BAIMENDUKO HERRIKO ELKARTEA

2023 / 2024ko ihizi sasoia usaiaiko aktibitateen erritmoan joan da: ihizi indibiduala (zakur untxaria edo erakustxakurra), eta taldekakoa (uxaldia), migrazio pasaia (birigarroak eta urzoak), belar txar kentze eta bidexken mantenua lanak, "Arberoaren Ostirala" gaualdia.

Sasoi honetan hogeihiztari inguruk herriko ihiziko karta hartu dute eta, berriki, herriko bi gaztek (haietarik bat neska gazte bat) ihizi baimena eskuratu eta gure elkartean sartuko dira.

Basurdearen ihizia egituratu da eta 6 herritan praktikatzen da: Izturitze, Donamartiri, Donoztiri, Armendaritze, Iholdi eta Landibarre.

Antolaketa berri horrek ehizaldietan ihiztari kopuru nahikoa ukaitea ahalbidetzen du eta, beraz, eraginkortasun hobea. Orotara, 2023 / 2024 sasoiaren, 42 basurde hil ziren 6 herri horietan (hamar inguru Izturitzen)

Ehizaldia abiatu aitzin, ihiztariak Oragarreko bidean instalatua den Algecoan elkartzen dira. Egokia eta, herri barnearen eta biztanleen lasaitasuna ez trabatzeko, ezin hobe kokatua den egoitza.

Ehizaldietan ihizi postuak hobe egikaritzeko, ihizi elkarteak hamar begiratoki inguru erosteko inbertsioa egingen du (instalatzeari 2025eko udan).

Aitzineko urteetan bezala, ACCA basurdearekin eginiko ekoizpen desberdinen salmenta egiten du:


Axoa: 12 € / 1.200 kg-ko kontserba,

Lukainak: 10 € / 1 kg hutsean (izoztua),

Zozizonak: 10 € / 2-ko zakua (hutsean),

Patea: 4 € / 250 gramoko kontserba

Beti posible da herriko ihiztari batekin edo batzuekin ihizia deskubritzera jitea eta, zergatik ez, bide batez ihizi baimena pasatzea.



**Argibide gehiago behar baduzu
(basurdearekin egin produktuen erostea,
ihiziko molde baten ezagutzeko gogoia,
ihiziko baimenari buruzko galderak, etab.),
jar zaitez harremanetan Ihizi Baimenduko
Herriko Elkarteko bulegoko kide batekin:**

Peyo ETCHEGOYEN: 06.79.71.67.46

Jon ETCHART: 07.82.66.15.67

Guillaume LABARERE: 06.59.91.88.04

BIGA BAT Ikasleen Burasoen Elkarte

2024 urtea gertakari anitzekoa izan zen eta BIGA BAT eskola buraso elkarteak ekimen desberdinak bururat eraman ahal izan zituen AIHERRA eta IZTURITZE herrietan.

Lehenik otsailean iragan zen tonbolaren antolaketarekin, zeinean sari ederrak izan ziren, eta ondotik berrikuntza, biziki preziatu zen apirila hastapeneko arroltze xerkatzea.

Maleruski, ondotik jin behar zen ibilaldia aro txarragatik ezeztatu zen baina maiatz-lore salmenta mantendu zen arrakastatsua izan zen. Buraso elkartearendako lehen aldia zen!

Europar hauteskundearen kariatara bixkotxa salmenta antolatu genuen eta Aiherrako Bestetako igandean parte hartu genuen usaiako talo salmenta eginez.

Eta eguzki ederraren pean eta eskolak abiatutako kermezaren erritmoan (Buraso elkarteak esku ukaldi bat eman zuen dohaintzen partean) eskola besta lerrokatu zen, ttipi eta handi loriatuz.

Iragan urteko arrakastaren aitzinean, Halloween arratsalde bat antolatu genuen, tailer, joko, margotze, ostatu eta bixkotxeekin. Denen parte hartzeak bi eskolen arteko partekatzea eta nahasketa memento ederra ahalbidetu dute berriz ere.

Haurrak Olentzero jin izanaz gozatzeko parada ukan zuten, Eguberriko askari gormantarekin!

Gertakari guzi horiek urte guziz gure haurrendako engaiatzeko eta haiei aktibitate eta deskubritzeko ludikoagoak proposatzeko parada ematen digute.

Eskola bakoitzak dohaintza bat ukan du:

- Aiherraren kasuan, aisetasun gehiagorako puf batzuk eta liburu eta mahai jokoak.
- Izturitzeren kasuan, euskarazko eta frantsesezko liburuak eta heziketa jokoak.

Azkenik, eskola bidaia eta ateraldi batzuen finantzamenduan parte hartu ahal izan dugu: orientazio jokoak, Euskal Elkargoak proposaturiko zinema/ikusgarri ateraldiak, baina baita deskubritze aberatsak, St Chinianena (ekainean Aiherrako ikasleendako) edo Baigorriko Oronoziarena (azaroan, haur eskolako eta lehen urtekoendako) bezala.

Ekimen horiek behar bezala burutu ahal izateko, buraso elkarteak mikroa duen soinu tresneria baten erostea deliberatu du animazioak beti giro goxoan iragan eta animatuak izan daitezen.

2025ean, buraso elkarteak gertakari desberdinetan inplikaturik egoten segituko du, mus txapelketa, arroltze xerkatzea, maiatzaren 1eko ibilaldia, Aiherrako bestak... eta energia guzia ematen segituko du gure haurrak kulturari eta deskubritzeari irekiak izan daitezen. Gune ondoko komunikazioetan informatuak izaten segitzen ahalko dugu.



ARBEROA IKASTOLA AINTZINA

Arberoa Ikastola Aitzina, Arberoa Ikastolaren (Donamartirin kokatua den euskarazko murgiltze ereduko herriarteko eskola) sustengu eta sustapenaren alde lan egiten duten Izturitzeko ikasleen burasoz osatua den elkartea da.

Urte hondar guziz ekitaldi desberdinak antolatuak dira:

- Eskolaren funtzionamendua finantzatzea ahalbidetuko duen dohaintzak biltzeko (3 ABLaren lansariak, hornikuntza eta material erostea, askariak...)
- Gure herriaren bizian parte hartu.

Aurten Arberoa Ikastolak 15 urte beteko ditu, gertakari desberdinez markatuko den urtebetetzea da. Arberoa Egunean, eskolako haurrek pastorala eman zuten herriko frontoian. Gainera, Gau Beltzaren inguruko gualdia eta Eguberriko merkatua antolatu ziren.

Bestalde, ikasleen burasok beste gertakari batzuk antolatu zituzten, Mendealan iragan zen Izaroren kontzertua, Donamartirin mus txapelketa, pilota partidak Donoztirin eta kantaldi bat Aiherran. Horrez gain, Donamartiriko, Donoztiriko, Izturitzeko eta Aiherrako herriko etxeen ekimenez, *Mutxiko* gualdi baten bidez udako ostiral arratseko animazioetan parte hartu dugu.

Arberoa Ikastolaren eskola proiektua Komunikazio Ez Bortitzean (KEB) eta autonomiaren eta pertsonalitatearen garapenean oinarritzen da, baita ingurumenaren errespetuan ere (hondakinen bereiztea, konpostatzea, baratze gintza, baltsako askari biologikoa...).

2008ko irailean irekia (5 ikaslerekin lehen urtean), 2023/2024 ikasturtea 55 ikaslerekin hasi zen.

Arberoa Ikastolaren funtzionamenduari buruzko galderak egin nahi badituzu, zuzenean ikastolarekin harremanetan sar zaitezke:

Ikastola: 05.59.29.76.23 edo buraso bat: Nikolas Lafitte 06.63.72.21.00 / Joëlle Garra 05.47.02.48.32

Eskolari edo plantan emaniko proiektuei buruzko xehetasun gehiago nahi baduzue gure webgunea kontsulta dezakezue: www.arberoaikastola.org



ARBEROAKO JOALDUNAK

Agur deneri,

Hiru ateraldi aurten: bi herrian berean: ihauteriak eta Eguberri eta, maiatzean, Bilboko alde zaharrean desfilatzerako gonbidatuak izan ginen.

Martxoan sagarnotegi ateraldi eder eta alegera antolatu zuen Artetxeak!

Joaldun taldeak haren jantzi eta tresnak egiten eta hobetzen segitzen du.

Joaldunek haren joareak ibarrean entzunarazten segituko dutelakoan,

Aupa Joalduna



ABARRATIA

Pilotari eskaini 30 urteko esperientzia, esku huskan eta emazteen palan

Abarratia pilota batasunaren Biltzar Nagusia Izturitzen iragan zen 2025eko martxoaren 21eko ostiralez, bulegoko kideak, tokiko hautetsiak eta lizentziatuen burasoak bilduz.

Bilan morala eta 2024ko aktibitateak

Batasunak lizentziatuen kopuruaren emendatze agertzen du (+16), antolaketa egituratuari eta trebaketa erregularrei esker. Urteko obratze azpimarragarrienetan:

- Babesleek finantzaturiko beroketarako 120 kirol-trikoten erostea.
- Aiherrako trinketan instalaturiko babesleen kanpo-estalkia.
- Gertakari federatzaileen antolaketa (erregeen bixkotxa, barne mailako lehiaketak eta txapelketa ofizialak).
- Sare sozial bidezko komunikazioaren garapena.

Diru mailako bilana

Partzuerren sustenguari eta kudeaketa zorrotzari esker, batasunaren konduak positiboan dira. Finantza aldia +331.92 €-rekin bururatzen da.

2024 kirol bilana

Batasuna txapelketa desberdinetan nabarmendu da:

- **Pala:** 192 partida jokatuak, final batzuetan lehiatu eta txapel bat erdietsia.
- **Esku huska:** 384 partida jokatuak, garaipen eta finala batzuk.

Jokalari onenak (**Marie, Elorri, Mikel, Teo, Xalbat** eta **Mattin**) batasuneko berezkoen mailako **Pierrek** emaniko eros bonoekin sarituak izan dira.

2025eko proiektuak

Batasunak haren aktibitateen garapenarekin segitzeko anbizioa du, proiektu gako batzuekin:

- **Punpa Ttiki** eta **Frontball** lehiaketa bezalako tokiko txapelketen antolaketa atxikitzea.
- **Ipar Euskal Herriko finala ofizialak** hartzea, batasunaren ikusgarritasuna indartuz.
- **Paleta eta Pasaka lehen irakaspenak** proposatzea, formakuntza eskaintza zabaltzeko.
- **Kirola eta kultura** elkartzea, Perkain euskarazko dokumentalaren emanaldiaren bidez.
- **Sarean denda** bat ireki, batasuneko koloreak dituzten jantziak proposatuz.

Bolondresendako deialdia

Batasunak **animazio, babesle xerkatze eta komunikazio** taldeak indartzeko bolondresak xerkatzen ditu, hauen garapena eta betikotasuna bermatzeko gisan.

Bilkura aperitifa-afari batekin lagunarteko giroan bururatu zen, Abarratia biziarazteko eta garatzeko denengaiamenduaren garrantzia azpimarratuz.

Gure ko-lehendakariak: Fredo Martinon: 06.72.24.04.77 / Fred Bereau: 06.10.45.55.94



2024KO GERTAKARIAK

ARBEROAKO OSTIRALAK

2024 urtea Arberoako ostiralen laugarren edizioarena izan zen. 2021az geroztik udako animazio dinamika bat plantan emana izan da Itzuritzeko, Aiherrako, Donoztiriko eta Donamartiriko herrietan, herri bakoitzeko elkarteen parte hartzeari esker herri bakoitzean uda osoan asteroko animazio erregularrak sortzeko gisan.

Arberoako ostiralek herritarrei eta bakantzatiarrei animazio horien inguruan elkartzeko parada eman diete. Gisa horretan, uztaile eta agorrilean zehar mutxikoek, kontzertuek, kantaldiek, ibilaldiek, herri kirolek eta Abarratia kaskoko animazioek ostiral arrats guzien erritmoa markatu zuten, elkarteek zerbitzaturiko erreken eta taloen usain pean.

Herriko etxeak, urte guzian zehar ekimen horietan eta herriko animazioan parte hartu duten elkarte guziak eskertu nahi ditu.



FRANTZIAKO TXEPELDUN



AS Bayonneko errugbi jokalaria, Neskak ezizenez ezagunak eta taldeko kide Izturitzeko biztanle den Amaia GONZALEZ dutenak, Frantziako Federal 1eko txapeldun izan ziren 2024an.

Bourgoin-Jallieu-ko Pierre-Rajon zelai historikoan, Baionesez partida 23 eta 20 irabazi zuten Ile-de-France eskualdeko RC Chilly-Mazarin (Essonnes) taldearen aurka, luzapenaren ondotik.

Gure goresmen guzia Amaia eta haren taldeari ibilbide eder horrengatik.



IZTURITZEKO MERKATUA, laborarien ekimenez



Istoria eza gatzeko, asteroko merkatu hori duela hemezortzi hilabete abiatu zen Izturitzeko etxalde bateko korralean, baratzezain baten, tokiko zereal biologikoekin lan egiten duen okin baten eta ardi esne biologikoarekin eginiko bi jogurt ekoizleren inguruan. Biziki fite Izturitze herri barneko Artetxea elkartearen egoitzara lekualdatzea deliberatu zuten, honek denen bistan den korralean haien esku uzten baitu eta neguan aterpea ematen baitie. Emeki egun bukaerako hitzordu hori elkartzeko tokia bilakatu da.

Merkatuak hurbiltasunaren karta baliatzen du. Geroztik, Arberoa ibarreko beste ekoizle batzuek zirkulua handitu eta ekoizpen fresko sorta zabala proposatzen dute ostiral guztiez, 18:00etatik 19:30era:

AMAIA eta URKO: ogia eta bixkotxak (Izturitze)

EZPONDA: behi gasna eta esneki desertak (Donoztiri)

UHARTIA: barazkiak (Izturitze)

NINA eta XALBAT: Eztia (Donoztiri)

ALDAMENIA: barazkiak, lekadunak (Izturitze)

ANSOBIETA - Oilaskoak (Arruta-Sarrikota)

ZABALTZA: ardi gasna eta ardi esnezko jogurtak
(Donamartiri)

Beste ekoizle batuk noiztenka heldu dira, bereziki usaian hilabete lehen ostiralez izan ohi diren animazio egunetan edo sasoiaren arabera:

SASIKO – Garagarnoa (Aiherra)

BETIRISASTEA – ardi gasna eta txarkuteria (Aiherra)

DOHATSU – Saldak (Izturitze)

ALIX – olio eta gatz aromatizatuak (Donoztiri)

IXURIBEHEREA – ahuntz gasna, jaki egina-presta eta sagar jusa (Aiherra)

ETXEXURIA – yuzu, kiwiak (Izturitze)

XEDARRIA – ardi gasna, txarkuteria, ekilore olio eta axoa
(Aiherra)

L'ATHANOR – Buztingintza (Donamartiri)

Tokiko elkarte batzuek erregulariki animazio kulturalak eta sukaldaritzakoak proposatzen dituzte merkatuaren inguruan: merkatuaren urtebetetze besta (ekainean), Artetxearen besta (agorri Hondarrean), Gau Beltza (urrian), Eguberriko Merkatura (abenduan), antzerkia, kontzertuak, hitzaldiak... Gualdi horietan jan edan eskaintza izaten da (ekoizpenen dastaketa, pintxoak, taloak, partekatzeko platerak...)

Merkatu hori lagun arteko giro ederrean iragaten segitzen du, tokiko jende fidelari esker.

BILKURA PUBLIKOA

2024ko abenduaren 06an, 20:30ean, herriko etxeak gomitaturik, informatzeko bilkura publiko bat iragan zen herriko jantokian. Hogeita hamar lagun ingururen aitzinean, lehenik Hegoburu jaunak EKINDAREk eramaten duen autokontsumo kolektiborako proiektua aurkeztu zigun. Autokontsumo kolektiboa, pertsona fisiko edo moral multzo batek panel fotovoltaiakoak bezalako energia iturri berriztagarrietan oinarriturik tokian ekoizten duten argindarra partekatzeko praktika bat da. Argindarraren zirkuitu laburra da.

Hazparnen kokatua den EKINDAR IKKS (fr. SCIC), Interes Kolektiboko Kooperatiba Sozietatea, zentral fotovoltaiakoak finantzatzen eta kudeatzen dituen energia berriztagarrien garapenari eskainia zaion sozietate bat da.

EKINDAR IKKSk kide izatearen aldeko deliberoa hartuz, 2024ko martxoan herriko etxeak desmartxa horrendako haren sustengua adierazi zuen, Hazparnek, Aiherrak, Bastidak, Euskal Hirigune Elkargoak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak... bezala. 30 urtez, haren eraikinendako berriztagarria eta tokikoa den argindar hornikuntzaz baliatzen ahalko da, justua eta neurtua den prezioan.

Interesatua de herritar oro EKINDAR IKKSk bazkide bilaka daiteke. Gehiago jakiteko eta proiektu horien eragina deskubritzeko, honako webgunean den aurkezpen bideoa begira ezazu ekindar.fr.

Bilkurak lau gairen aurkezpenarekin segitu zen, hauen artean herri barnearen antolaketarako lehen lanak eta aldizkari honetan jadanik aipatu dugun erosi berri dugun Hirigoinia etxearena.

2023ko abenduan agindu ondotik, haren osaketak hasi berria den Lapurdi Ekialdeko hTHPa (herriarteko Tokiko Hirigintza Plana) 27 herri hunkitzen ditu, hauen artean Izturitze. hTHPa, 10 urteko perspektiban herriarte mailan lurralde baten antolaketa eta hirigintza antolatzen dituen tokiko plangintzarako dokumentua da. hTHP baten plangintzatzeak urte batzuk behar ditu. Desmartxa horrek, 2050 urterako laborantza, natura eta oihan eremuen ZAG zero artifizializazio garbia legearen aplikazioa jarraitu beharko du. Informatzeko bilkura gehiago antolatuko da, hTHP berri horren aitzinatzeari buruz gehiago errateko.

Oroitarazi zen, gaur egun, gure herriarendako 2020ko otsailean onartu zen Hazparnealdeko THPa aplikatzen dela.

Azkenik, 2025eko urtarriletik aitzina izanen diren Txik Txak sareko garraio eskaintza berriak aipatu ziren. Orain arte zen 13 linea erregularra Hazparne eta Baiona artean ibiliko den 43 linea berriak ordezkatzeko du oraindik aitzina. Bestalde, Izturitzetik iraganen den Donapaleu eta Kanbo arteko 60 linea berria sortuko da. Haatik, berrikuntza, EBGarekin (eskaera bidezko garraioa). Toki zehatz batera eramateko etxera xerka jinen zaigun garraio zerbitzua.

Gaualdia, informazioz, eztabaidaz eta galderaz aberatsa, biziki preziatua izan zen eta trago baten inguruan bururatu.





EGUBERRIKO IKUSGARRIA

2024ko abenduaren 7an, gure herria magiaren erritmoan bizi izan zen, HPBko (herriarteko pedagogia bateratzea) haurrak bildu zituen ikusgarri xoragarriarekin.

Herritarrak talentu handiko mago batek aurkezturiko misterio eta ilusioak deskubritzeko elkartu ziren. Haurrak, begiak zabal zabalik, karta jukutria, agertze harrigarri eta grabitatearen legea desafiatzen zuten objektuen desfilearekin liluran ziren. Helduek, haiek ere liluratuak, irri eta harridura partekatu zituzten, haien haur arima berriz kausitzearekin batera.

Oroimenetan kokatua geldituko den ikusgarri zinez arrakastatsua.



Ez dugu Lavoine jn. eta and. eskertzea ahanzikiko, urteak joanez bilakaera ederra pairatzen duen eta handi eta ttipiak loriatzen dituen dekoratu xoragarriagatik.

ARBEROAREN GARBITZEA

2025eko martxoan hamabost lagun inguru elkartu ziren ekimen eder horretan parte hartzeko: ARBEROAREN garbitzean. Giroa goxoa eta atsegina zen, bakoitzak haren umore ona eta energia ekarri baitzituen eremu natural hori garbiago eta atseginagoa izan dadin.

Eskularru eta zikin poltsez armaturik, goiza hondakinak biltzen iragan zuten. Partekatze memento horrek parte hartzaileen arteko lotura azkartu zuen eta gure ingurumena zaintzeko garrantziaz sentsibilizatzea ahalbidetu.

Ekimenaren arrakastan oinarriturik, parte hartzaileek 2026an esperientzia errepikatzea deliberatu zuten. Lagun arteko giroan bururatuko den garbiketa egun batean berriz elkartzeko berantetsiak dira jadanik.

Apairu eder baten inguruan gertatzen den partekatze memento hori egin indarrak ospatzeko eta gure erreka babesteko egin beharreko ondoko ekintzei buruz mintzatzeko parada izanen da. Hitzordua 2026ko martxoko lehen hamabostaldian finkatuko da, ekimen eder horrekin segitzeko gisan.



Pour rester branché, élaguez



Saviez-vous que l'accès au téléphone, à la télévision et à l'internet est en partie conditionné par l'entretien régulier de la végétation ?

Si vous êtes propriétaire de terrain ou de jardin, vous avez la responsabilité de l'entretien de vos plantations situées à proximité des réseaux de télécommunication via des opérations de débroussaillage, de coupe d'herbe et surtout d'élagage des arbres.



Élaguer régulièrement les arbres de vos jardins situés à proximité des réseaux permet de prévenir la chute de branches et d'éviter l'arrachage des lignes téléphoniques en cas de vent ou d'intempérie.



Les bénéfices d'un élagage régulier

Favoriser une bonne santé des arbres et préserver leurs qualités, leur esthétique et un confort de récolte

Limiter le ramassage des feuilles

Prévenir la chute des branches



Le conseil

Le recours à un professionnel est vivement recommandé en cas de solution dangereuse et/ou complexe

Le réseau est le lien indispensable pour relier les citoyens, les familles, les entreprises, les universités, les écoles et leurs élèves, ...
Il nous permet d'entretenir nos relations avec nos proches, de travailler, d'enseigner, de se soigner, de se divertir.

ARGIBIDEAK

HELBIDERATZEA: EGIN BEHARREKO URRATSAK

Oroitarazten dizugu zure solaskide guziei zure helbide berri zehatza helarazi behar diezula.

Hori egin ez dutenentzat, berriz diogu bakoitzaren egitekoa dela helbide berri zehatzaren helaraztea solaskide guziei: banketxea(k), mutualitatea(k), asurantzak etxea(k), enplegatzailea(k), Eritasun Asurantzaren Lehen mailako Kutxa (EALK), familien laguntza kutxa (FaLK), erretreta kutxa, energia-, telefono- eta Internet-hornitzailea(k), harpidetza(k) (kazetak, etab.). Hori egin ezean, baliteke paketeak eta gutunak ez gehiago errezibitzea.

“Changement d’adresse en ligne” (helbidez kanbiatzea linean) telezerbitzua ere erabil dezakezu, erakunde desberdinei aldi berean jakinarazteko ahala ematen baitu:

<https://psl.service-public.fr/mademarche/JeChangeDeCoordonnees/demarche?execution=e1s1>

LANDARE HESIEN MANTENTZEKO ARAUDIA

D161-24. artikulua: Herriko bideetara buruz aitzinatzen diren zuhaitzen adar eta sustraiak moztu behar dira, jabeen edo laborarien ardurapean, pasabidearen segurtasuna eta erosotasuna zaintzeko eta bidea kontserbatzeko gisan. Landare hesiak edo heskaiak herriko bideen mugaraino joan daitezke. Tokiko bizitzaile jabeek manu hauek betetzen ez badituzte, Herriko Etxeak galdatu gabe egiten ahalko ditu xedarratze-obrak, haiek pagaturik, haiek horren egitera behartu eta emaitzarik izan ez bada.

TIGRE ELTXOA

Emeen erdiak 29 egun bizi dira 25 °C-tan eta 32 egun 30 °C-tan. Eltxo hori batez ere hiriguneetan garatzen da. Emeak erruten du ur geldi baten gainetik milimetro batzuk gorago dagoen eremu solidoen gainean, “etxe antropikoetan”, hots, gizakiak sortuetan, adibidez, liliontzietan, horien azpikoetan, gaizki hustu teilatu hodietan, errota kautxu zaharretan, burdinazko edo plastikozko ontzi utzietan. Larba eta arren “etxe naturalak” ere koloniza ditzake, hala nola arroka-ziloak, zuhaitz-ziloak, euri bortitzen ondoko ur-putzuak. Tigre eltxoen kopuruaren emendioa geldiarazteko, garrantzitsua da ura geldi egon daitekeen leku guztiak hustea, dela bizitegien barnean, dela kanpoan.

ALOKATZEEN PREZIOAK

Denen Etxea	Isturiztarrak	Kanpokoak
- Egun erdia	200 €	400 €
- Egun osoa	350 €	700 €
- Gutenez 50 pertsonako taldea	200 €	400 €
“On Egin” kantina	100 €	200 €

TRINKETEA

Oren bat, argirik gabe, 18:00etatik goiti: 7 €

Oren bat, argiarekin, 18:00etatik goiti: 10 €

Larunbat goizean eta igandean 18:00ak arte, trinketea urririk da herritarrendako.

TRINKETEAREN IREKITZEKO

1. Deitu 06 67 90 19 88 zenbakira, kutxaren irekitzeko kode zenbakiaren eskuratzeko.

2. Jostatu trinketea.

3. Giltza bere tokian ezarri aitzin, segurtatu trinketeko atea ongi hetsia dela.

4. Aldatu kodea, giltza-kutxa blokatzeko.

Ekipamendu publikoaren ibilera onaren bermatzeko, denen ardura da trinketea ahal bezain egoera hobereanean mantentzea. Heltzean, galdutako zaizue trinketearen egoera ona kontrolatzea; kalteak agertuz gero, azken erabiltzailea izanen da eragin kalteen erantzulea. Trinketa erabiltzen duten haur adingabeen kasuan, burasoen erantzukizuna da protokoloak errespetatzea.

GUZTIENTZAKO GELA

Herriko elkarteek urrik baliatzen ahal dute, baina elkarte bakoitzak urtean gehienez 3 aldiz baliatzen ahal du. Laugarren alditik goiti, elkarteak 100 € pagatu beharko ditu gertakari bakoitzeko.

Herritarrei urrik uzten zaie ehorzketa askarien kariatara.

Herriko pertsona batek sala bi egunez baliatzen badu ezkontza baten ospatzeko, alokairuaren prezioa egun batekoa izanen da.

Kasu guzietan alokairu kontratu bat sinatuko da, **gertakaria baino hilabete bat lehenago**. Kontratuari barne araudia erantsiko zaio. Gelaren alokatzeko, Herriko Etxera joan behar duzu kontratua eta barne araudia sinatzeko eta berme txekea uzteko.

Oharra: Besta Komiteak eta Herriko Etxeak jakinarazten dute mubleak (mahaia + aulkiak) urrik prestatzen dituztela. Zerbitzu hau interesatzen bazaizu, jarri harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin. Hartu eta itzuliko diren bakoitzean, prestatze-erregistroa sinatu beharko da.

JOSTALEKUA

Eskolaldian:

Jostalekua ez daiteke erabil eskolako tenoreetan.

Jostalekua erabil daiteke asteburuetan.

Jostalekua erabil daiteke asteazkenetan, 14:00etatik goiti.

Jostalekua erabil daiteke astelehen, astearte, ortzegun eta ortziraletan, 17:00etatik goiti.

Eskola bakantzetan:

Aisialdi zentroak eraikina erabiltzen duelarik:

Jostalekua erabil daiteke egutegiaren arabera.

Aisialdi zentroak jostalekua arratsalde erabiltzen duelarik, 18:30etik goiti jendeak erabil dezake.

Aisialdi zentroak ez duelarik jostalekua erabiltzen, jendeak erabil dezake.

Salbuespen gisa, debekatua izan daiteke jostalekua erabiltzea.

Denak goxoki sentitzeko eta denak errespetatzeko, jostalekua beti garbi utzi behar da. Horretarako, zikinontzi anitz daude denen eskura.

IDAZKARITZAREN ORDUTEGIA

	Goiza	Arratsaldea
Astelehena	8:00 – 12:30	
Asteartea	8:30 – 12:30	13:30 – 17:00
Asteazkena		
Ortzeguna	8:00 – 12:30	
Ortzirala	8:00 – 12:30	13:30 – 18:00

HILERRIA

Bi hilobi libro dira. Interesa baduzu, jar zaitez harremanetan Herriko Etxearekin.

HILERRIKO KONTZESIOA

Familiako hilobia baldin baduzue, jabetasun titulua baduzuela segurtza ezazu. Azken hau zuen ondokoei emangarria izanen da.

Hilobi kontzesio bat, hilerri batean zendu dena lurperatzeko erreserbatua den tokia da. Herriko etxeak esleitzen du 30 urteko iraupenerako. Kontzesioa familia batek edo partikular batek eros dezake eta ofizialki erregistratua izan behar da.

Usu, erregularizatzea kontzesioa ez delarik formalki erregistratua izan gertatzen da, edo dokumentu administratiboak osatugabeak edo galduak direlarik. Erregularizatzerik gabe, hilobian lanak egiteko, kontzesioa berritzeko edo ondokoei eskubideak transmititzeko zailtasunak egon daitezke.

Lehen etapa herriko etxeko gure idazkariarengana hurbiltzea da, hark beharrezko informazioa eta bete beharreko formularioak emanen baitzikizue.

HERRIKO IKASLE LAGUNTZAK

Goi-mailako irakaskuntzan (baxotik goiti) izena eman duten ikasle guziei galdegina zaie Herriko Etxeari lehenbailehen jakinaraz diezaiotela, ikasle laguntza bat eskura dezaten (lehen galdea egiteko, bankuko nortasun agiria eta eskolatzeko agiria eman behar dira). “Prépa” edo prestakuntza klasean izena eman duten ikasleek ere ikasle laguntza eskuratzen ahal dute, baina prestakuntzaren iraupenaren arabera.

Oharra: ikasle laguntza urte guziez ordainduko zaie, maiatzetik goiti, aitzineko ikasturte sartzean izena eman zuten ikasleei.

HERRIAREN LAGUNTZA AIGA DIPLOMAREN UKATEKO

Herriko Etxeak 2024ko otsailaren 3an deliberatu zuen Animatzaile Izateko Gaitasun Agiriaren (AIGA) kostuaren zati bat (200 €) finantzatzeko laguntzea, herrian bizi diren 16 urtez goitiko gazteentzat, familiaren zergapeko irabaziak edozein izan daitezzen.

Interesa baduzu, jar zaitez harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin, eta dokumentu hauek aurkez itzazu:

- Formakuntzan izena eman izanaren agiria
- Bizilekuaren frogagiria
- Bankuko nortasun agiria



ERROLDA, “DEFENTSA ETA HERRITARTASUNA” EGUNA

Frantses herritartasuna duen orok, 16 urterekin, Herriko Etxeak errolda dezan galdegin behar du. Baitezpadakoa da konkurtsoetara, etsamina publikoetara eta gidabaimenera aurkeztu ahal izateko.

HERRIKO BERRIAK

Informazio hauek Internet bidez jaso nahi badituzue, igor zuen helbide elektronikoak:

isturits-com@outlook.fr

KOMERTZIO IBILTARIAK

Mutturfin Food Truck-ak, asteko menu bat eta anburgesak lur sagar frijituekin proposatzen ditu, lekuko mozkinaz hornituak. Bi asteartetik behin trinketeko aparkalekuan egoiten da, 18:45-etarik goiti.

HONDAKINEN BILKETA

Zer egin behar da ezagugailua galduz gero?

Jar zaitez harremanetan Euskal Hirigune Elkargoarekin, 05 59 57 11 80 telefono zenbakira deituz edo dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr e-postara idatziz (ezagugailuaren prezioa: 5 €).

HONDAKINDEGIEN ORDUTEGIA

Hondakindegira joan behar da honako hondakinen botatzeko: trabagarriak, landare-hondakinak, egurra, burdineria, tresna elektrikoak, kartoi handiak edo hondakin arriskutsu edo kutsatzaileak (motor-olioak, olio-iragazkiak, disolbatzaileak, tindua, pilak, bateriak, etab).

<u>Beskoitzeko hondakindegia</u>	<u>Heletako hondakindegia</u>
Astelehena: 14:00-18:00 Asteazkena, ortziralea eta larunbata: 09:00-12:00 - 14:00-18:00	Asteartea eta ortzeguna: 14:00-18:00 Larunbata: 09:00-12:00 - 14:00-18:00

AURKITEGIA

Herriko Etxea.....	05.59.29.62.84	mairie@isturitz.fr
Arberoan Alaiki.....	07.86.49.00.15	alsh@isturitz.fr
Le Petit Prince eskola publikoa.....	05.59.29.45.97	ce.0640918A@ac-bordeaux.fr
Gela eta trinketa alokatzeko.....	06.67.90.19.88	mairie@isturitz.fr
Pausa Lekua zahar etxea.....	05.59.70.27.00	aapava@orange.fr
Ura eta saneamendua.....	05.59.29.17.72	regie-eau-secteur4@communauté-paysbasque.fr
Etxe-hondakinak.....	05.59.57.11.80	dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr
Mugikortasunen sindikatua.....	05.59.44.77.77	transportsscolaires@communaute-paysbasque.fr
Hazparnealdeko Lurralde Eremua..	05.59.29.16.47	contact@communaute-paysbasque.fr

